

Prentsa oharra

Nota de prensa

Mozketak Erregezaintza kalean, Jakintza ikastetxerako sarbideak errazteko

Mozketak ikasturtean zehar egingo dira, astelehenetik ostiralera, 8:50etik 9:05era eta 16:25etik 16:45era

Erregezaintza kalea 15 minutuz itxita egongo da Jakintza Ikastolan sartzeko eta irteteko orduetan, ikasleen segurtasuna bermatzeko, COVID-19ak sortu dituen behar berrien testuinguruan.

Mozketa gaur hasiko da Matia kaleko bidegurutzetik ikastetxeraino, astelehenetik ostiralera, 8:50etik 9:05era eta 16:25etik 16:45era ikasturte osoan.

Mugikortasun sailak eta ikastetxeak, halaber, herritarren laguntza eskatu eta eskertzen dute, hauren segurtasuna bermatzeko.

